



Beskoitzeko ikastolako familiekin elkartasuna

Hedabideen bidez jakin dugunez, igande goizean Beskoitzen (Lapurdi) hilkutxa bat agertu zen herriko etxe aitzinean, "Euskara ?-2040" idatzirik eta lore pote bat gainean zuela.

Ez da lehen aldia halako ekintzak gertatzen direla. Berrikitan laborariek egin duten gisan, edo lehenago sindikatuek egin izan duten gisan, gisa horretako hilkutxek gaur egun arlo ezberdinetan Frantziako Estatuak eta tokiko erakundeek daramaten politikaren ondorio lazgarriak bistarazten dituzte. Hizkuntza politikari dagokionez, gaur egungo politika linguizidek euskara hilobirako bidean ezartzen dutela begien aitzinean agerrarazi du ekimen horrek.

Baina prefeturak nahasmendua sortzea erabaki du, eta hautetsiak intimidatzeko ekintza bat zela adierazi du Frantziako hedabideetara zabaldu duen agiri batean. Julien Charles Pirinio-Atlantikoetako prefetaren jarrera onartezina da.

Bada hilabeteak, Beskoitzeko ikastolak, Seaskak, euskalgintzak eta jendarteak oro har, botere publikoei afera honetan esku har dezatela galdegiten diegula. Frantziako Estatuak, kontratupean duen ikastola defenditu ordez, hiru hilabeteren buruan arrazoirik gabe eskolarik gabe geldituko diren haurren eskubideak defendatu ordez, Beskoitzeko herriko etxearen jarrera babestea erabaki du. Eta ikastolaren kontra egiteko nahitarako nahasmendua sortu du gertakizun honen bidez, nahitarako loturak eginez.

Prefeta jauna, ez dira hautetsiak mehatxupean Euskal Herrian, euskara da mehatxupean, ikastola da mehatxupean, burasoak eta familiak dira mehatxupean!

Agiri honen bidez, gure elkartasun osoa adierazi nahi diegu euskaraz ikasteko erabakia hartu duten Beskoitzeko ikastolako familiei.

Bide batez Frantziako Estatuari, herriko etxeari eta tokiko erakundeei, Euskararen Erakunde Publikoari dei egin nahi diegu, euskararen biziraupena segurtatzeko neurriak oraindanik har ditzaten, euskararen biziberritzea helburu izanen duen egiazko hizkuntza politika baten martxan ezartzeko.

Baiona, 2024ko martxoaren 13a

Soutien aux familles de l'ikastola de Briscous

Euskal Konfederazioa a appris par voie de presse qu'un cercueil portant la mention "Euskara ?-2040" et sur lequel était posé un pot de fleurs avait été déposé devant la mairie de Briscous dimanche dernier.

Ce n'est pas la première fois que la symbolique du cercueil est utilisée. A l'instar des agriculteur.rices il y a peu, ou, comme le font fréquemment des syndicats, cette image du cercueil permet de mettre en exergue les conséquences néfastes, dans différents secteurs, des politiques publiques mises en place par l'État français et/ou les institutions locales. Pour ce qui est de la politique linguistique, l'action de dimanche dernier chercherait à alerter sur les politiques linguicides conduisant irrémédiablement la langue basque à sa mort.

Mais loin d'apaiser les esprits, le Préfet des Pyrénées-Atlantiques Julien Charles a adressé un communiqué largement diffusé à la presse hexagonale, dans lequel il évoque une volonté d'intimider les élu.es. Ces propos sont inadmissibles.

Cela fait maintenant des mois que l'ikastola de Briscous, Seaska, le mouvement associatif et, plus globalement, la société civile demandent aux pouvoirs publics de s'impliquer dans la résolution de ce différend opposant la mairie de Briscous à l'ikastola. L'État, au lieu défendre l'établissement scolaire sous contrat avec l'État, sans défendre le droit à la scolarité des enfants qui risquent, sans aucune raison, de se retrouver sans école dans trois mois, a décidé de s'aligner sur la position de la mairie de Briscous. Il a décidé d'entretenir la confusion discréditant l'ikastola, et en établissant des amalgames inacceptables.

Non Monsieur le Préfet, au Pays Basque ce ne sont pas les élu.es qui sont en danger mais bel et bien la langue basque, l'ikastola, les parents et les familles !

Par ce communiqué Euskal Konfederazioa apporte son total soutien aux familles de l'ikastola de Briscous ayant fait le choix d'une scolarité en langue basque pour leurs enfants.

Par ce biais nous lançons un appel à l'État, aux mairies et aux institutions locales et à l'Office Public de la Langue Basque afin qu'ils prennent dès à présent les mesures qui permettront à la langue basque de se développer, et qu'une politique ambitieuse de pleine revitalisation de la langue basque soit mise en place.

Baiona, le 13 mars 2024